



EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN
SAILA
*Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai
Politikako Sailburuordetza*

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONOMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO
AMBIENTE
*Viceconsejería de Agricultura, Pesca y
Política Alimentaria*

EBAZPENA, 2021EKO MAIATZAREN 5EKOA, NEKAZARITZAKO, ARRANTZAKO ETA ELIKAGAI POLITIKAKO SAILBURUORDEARENA, ITSAS GARAPEN ELKARTEAK KUDEATZEN DUEN PARTAIDETZAZKO TOKI-GARAPENERAKO ESTRATEGIA ALDATZEN DUENA. ESTRATEGIA HORI EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARRANTZAKO EUROPAKO ITSAS FUNTSARI BURUZKO 508/2014 (EB) ERREGELAMENDUAN BABESTUTA DAGO.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2016ko otsailaren 3ko Aginduaren bidez, partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak hautatzeko eta onartzeko deialdi publikoa egin zen, bai eta 2014-2020 programazio-aldian horiek kudeatzeaz arduratuko diren arrantza-sektoreko tokiko ekintza-taldeak hautatzeko eta onartzeko deialdi publikoa ere. Deialdi hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 508/2014 (EB) Erregelamenduaren esparruan egin zen. Erregelamendu hori Europako Itsas eta Arrantza Funtsari buruzkoa da.

Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordearen 2016ko ekainaren 22ko Ebazpenaren bidez, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia hautatu eta onartu zen, eta Itsas Garapen Elkarteak, Flag, arrantza-sektoreko tokiko ekintza-talde izendatu zen, partaidetzazko toki-garapeneko estrategia kudeatzeko, 508/2014 (EB) Erregelamenduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Itsas Arrantza Funtsari buruzkoan, babestuta.

2016ko abuztuaren 12an, Arrantza eta Akuikulturako zuzendariaren 2016ko uztailaren 15eko Ebazpena argitaratu zen EHAAn (153. zk.), zeinaren bidez jakinarazten baita Itsas Garapen Elkarteak, Flag arrantza-sektoreko tokiko ekintza-taldearen izendapena, hautatutako eta onartutako partaidetzazko toki-garapeneko estrategia kudeatzeko.

2019ko abenduan, Itsas Garapen Elkarteak Flagek partaidetzazko toki-garapeneko estrategia ebaluatu zuen, eta ondorioztatu zuen, alde batetik, programatutako ekintzak areagotu egin behar zirela, dagoen potentziala hobeto aprobetxatzeko eta estrategia berrikusteko prozesuan identifikatutako behar berriei erantzuteko; eta, bestetik, Plentziako udalerrira esku hartzeko arrantza- eta akuikultura-eremu berri gisa sartu behar zela, eta, azkenik, beharrezkoa zela strategiaren finantzaketa handitzea, azaldutako beharrei erantzuteko.

Itsas Garapen Elkarteak, Flagek 2021eko otsailaren 3an eskatu zuen partaidetzazko toki-garapeneko strategiari proposatutako aldaketak onartzeko, estrategia hori gauzatu ondoren, bai eta arrantza-sektoreko langileen higiena, osasuna eta segurtasuna bermatzeko neurriak sartzeko ere, COVID 19ren pandemiak eragindako krisialdian. Era berean, Europako Itsas eta Arrantza Funtsaren 2014-2020 aldirako Programa Operatiboaren esparruan Euskadiko Finantza Planari egokitzen zaion Estrategiaren finantza-koadro berria aurkeztu du.

Ondorioz, 2016ko otsailaren 3ko Agindua, 508/2014 Erregelamendua, 1/1997 Legegintzako Dekretua eta aplikatu beharreko gainerako araudi orokorra ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.-Itsas Garapen Elkarteak, Flag arrantza-sektoreko Tokiko Ekintza Taldeak, proposatutako partaidetzazko toki-garapeneko strategiaren aldaketa onartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Arrantzarako Europako Itsas Funtsari buruzko 508/2014 (EB) Erregelamenduan babestuta dagoen partaidetzazko toki-garapeneko estrategia kudeatzeko



(partaidetzazko toki-garapeneko estrategia, onartutako aldaketa barne, eskuragarri dago Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saliaren web orrian: www.euskadi.eus/informazioa/arrantza-guneen-garapena-europako-itsas-eta-arrantza-funtsaren-esparruan-eiaf-2014-2020/web01-a2arraku/eu/)

2.- Ebazpen honekin ados ez bazaude, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diozu Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordeari, administrazioarekiko auzien aurretik, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021ko maiatzaren 5ean

Bittor Oroz Izaguirre
Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako sailburuordea